# Beste Iragarki Ofizial Batzuk

## HERRIZAINGO SAILA

IRAGARKIA, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoan ezarritakoa haustearren irekitako zigor-espediente hauetan Herritarren Segurtasunerako zuzendariak emandako Ebazpenak jakinarazteko dena. 11308

IRAGARKIA, Miguel Ángel San Martín Ariz jaunak eskatuta hasi den 293/03 erreferentzia zenbakiko espedientean berari egindako errekerimendua jakinarazteko dena. Errekerimendu hori Norberaren Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legean azaltzen diren eskubideak betearazteari buruzkoa da. 11310

IRAGARKIA, zigor-espediente hauei dagokien gora jotzeko errekurtsoaren ebazpena jakinarazteko dena: 11310

## ZERGA AGENTZIA VALLADOLIDEKO ORDEZKARITZA

ZITAZIOAK, pertsona bat azal dadin, jakinarazpena egiteko. 11318

## ZERGA AGENTZIA BARTZELONAKO ORDEZKARITZA

IRAGARKIA, pertsona bat azal dadin, jakinarazpena egiteko zitazioari buruzkoa. 11319

# Otros Anuncios Oficiales

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

ANUNCIO por el que se notifican las Resoluciones del Director de Seguridad Ciudadana de los expedientes que abajo se indican, incoados con relación a infracciones de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana. 11308

ANUNCIO por el que se notifica el requerimiento realizado a D. Miguel Ángel San Martín Ariz en el Expediente con número de referencia 293/03 incoado a su instancia sobre el ejercicio de derechos contenidos en la Ley 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal. 11310

ANUNCIO por el que se notifica la resolución del recurso de alzada en los siguientes expedientes sancionadores. 11310

## AGENCIA TRIBUTARIA DELEGACIÓN DE VALLADOLID

CITACIONES para ser notificados por comparecencia. 11318

## AGENCIA TRIBUTARIA DELEGACIÓN DE BARCELONA

ANUNCIO de citación para notificación por comparecencia. 11319

# Xedapen Orokorrak

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### Zk-3453

AGINDUA, 2003ko maiatzaren 16koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena. Honen bitartez, AFI programa garatzen da, industria-sektorean inbertsioak egiteko finantza-laguntzen programa, alegia.

Inbertsioak egiteko finantza-laguntzen programa honek argi ta garbi nahi zuen, hasieratik, industria-sektoreko enpresa txiki eta ertainei finantza-bideak eskaintzea eta bermatzea, Europako erkidegoko lehiakideen aurrean antzeko baldintzetan joka zezaten, horretarako, ordaintzeko epe luzeak eta korritu-tasa egokiak emanda. Hasiera-hasieratik, enpresa txiki eta ertainei eman-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### N°-3453

ORDEN de 16 de mayo de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se desarrolla el programa AFI, de ayudas financieras a la inversión en el sector industrial.

El Programa de Ayudas Financieras a la Inversión, el cual nació con una clara vocación de asegurar a las Pymes industriales el acceso a los medios de financiación en condiciones aceptables respecto a sus competidores comunitarios facilitándoles una financiación a largo plazo y a moderados tipos de interés, desde sus comienzos ha venido adaptándose a las directrices fijadas

dako laguntzak metatu egin zitezkeela-eta, Europako Batzordeak emandako jarraibideak aintzat hartu eta errespetatu ditu, eta, horiekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean ezarritako irizpide batzuk ere bai.

Aspaldion, baina, Europakoekin gero eta batuago gaudela eta korrituen interesak ere antzekoak direla leku batean zein bestean, kostuak ez gaitu inguruko herrialdeetatik bereizten. Horri lotuta, finantza-erakundeek irabaziak izateko tarte txikiagoa dute, eta, finantza-operazioren batean kale eginez gero, ondo ateratako askoz ere operazio gehiago behar izaten dituzte horri buelta emateko; horren ondorioz, askoz ere berme handiagoak eskatzen dituzte orain lehen baino.

Egoera zein den ikusita, pentsatzekoa da epe ertainean egoera horrek berak jarraituko duela, edo areagotu egingo dela, eta gure enpresek gero eta oztopo gehiago izango dituztela epe luzera finantzazioa lortzeko orduan. Eta arazo orokor hori gehien jasan behar izango dutenak, enpresa txiki eta ertainak izango dira, eurek izango baitituzte oztoporik handienak finantza-bide horietara iristen. Horrenbestez, inoiz baino beharrezkoago ikusten dugu enpresentzat finantza-bide egonkorrak egotea, eta horrexegatik da garrantzitsua finantza-erakundeekin sinatutako lankidetza-hitzarmena.

Orobat, finantza-laguntzak arautzeko Agindu honetan, orain arteko aldaketak jasotzen dira, esaterako, Ekonomia Sustatzeko Erakunde Arteko 2000-2003 aldirako Planaren zenbait helburu betetzen laguntzekoak; izan ere, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren plan horren bidez gure industria-sarearen zenbait akats konpondu nahi dira, esate baterako, enpresa-proiektuak garatzeko beharrezkoak diren baldintzak sortzea eskualde behartsuetan, baina, orain arteko moldaketa horiez gainera, beste zenbait neurri ere hartuko dira orain, administrazioko kudeaketa-prozedurak arinagoak eta errazagoak izanda, enpresei erantzun hobea eta arinagoa ematearren.

Agindu honek arautzen duen laguntza-programak ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuaren xedapenak garatuko ditu. Dekretu horrek ekonomia sustatzeko laguntzak ezartzen ditu. Lehenengo xedapen gehigarrian ahalmena eman dio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari hura garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

Horrenbestez, honako hau,

XEDATU DUT:

## I. KAPITULUA
## XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Xedea.

Ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuaren 11. artikuluak ekonomia sustatzeko zenbait laguntza-bide ezar-

por la Comisión Europea relativas a la acumulación de ayudas dirigidas a la Pymes, incluyendo asimismo algunos criterios contemplados en el Texto Refundido en la ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País vasco.

Sin embargo, en la coyuntura actual de convergencia y bajos tipos de interés, el coste ha dejado de ser un elemento diferencial respecto a los países de nuestro entorno. No obstante, debido a que el margen para las entidades financieras se reduce sustancialmente y para compensar una operación fallida requieren de un número mayor de operaciones con éxito, este factor implica que las entidades financieras exijan mayores garantías.

Este escenario nos lleva a pensar que a medio plazo se van a mantener e, incluso a acentuar, los obstáculos que nuestras empresas encuentran a la hora de obtener financiación a largo plazo. El problema será especialmente grave para las nuevas y pequeñas empresas que difícilmente van a poder acceder a dicha financiación. Por ello la existencia de un marco estable de financiación, el cual nos proporciona el Convenio de Colaboración con las Entidades Financieras, es más que nunca necesario.

Asimismo, en la presente Orden reguladora de las ayudas financieras se han introducido, además de las anteriormente incorporadas modificaciones a fin de colaborar en la consecución de determinados objetivos del Plan Interinstitucional de Promoción Económica 2000-2003, del Departamento de Industria, Comercio y Turismo que pretenden dar respuesta a ciertas deficiencias de nuestro tejido industrial, como es la creación de las condiciones necesarias para el desarrollo de proyectos empresariales en zonas desfavorecidas, una serie de medidas para conseguir una mayor simplificación de los procesos de gestión administrativa que redunde en una mejor y más ágil respuesta a las empresas.

El programa de ayudas regulado en la presente Orden desarrolla lo dispuesto en el Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas Líneas de Ayudas con fines de Promoción Económica, en cuya Disposición Adicional Primera se faculta al Consejero de Industria, Comercio y Turismo para dictar las disposiciones que sean precisas para su desarrollo y ejecución.

En su virtud,

DISPONGO:

## CAPÍTULO I
## DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Objeto.

La presente Orden tiene por objeto desarrollar el artículo 11 del Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el

tzen ditu, eta, hori bideratzearren, AFI-Industria programa ezartzen du; programa horren bidez Euskal Herriko Administrazio Orokorrak industria-arloko enpresei finantza-laguntzak emango dizkie aktibo finkoetan inbertsioak egin ditzaten Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eremuan, agindu horretan eta hura garatzeko xedapenetan adierazitako eran; hain zuzen ere, hori guztia garatzea, horixe da Agindu honen xedea.

*2. artikulua.–* Baliabide ekonomikoak.

1.– Aurreko artikuluan adierazitako helburura zuzendutako ekonomia-baliabideek sorburu hau izango dute: Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituak. Aurrekontu-ekitaldian guztira emango diren laguntzen zenbatekoak ez du diru-izendapen hori gaindituko, edo, baldin eta, indarrean dauden legeen arabera, aurrekontuetan aldaketak onartzen badira, ez du zenbateko hori eguneratuta sortzen den emaitza gaindituko. Horrelako egoerarik gertatuz gero, horren berri jakinarazi behar da Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuordearen ebazpen bidez.

2.– Diru-laguntza horiek emateko erabiliko den aurrekontu-atalean kreditu egokirik edo nahikorik ez badago bete nahi den helburua betetzeko, orduan, Administrazioak ebazpena emango du diru-laguntza horiek ezesteko. Horiek horrela, programa hau indarrean dagoen bitartean, laguntzak emateko kontsignatutako kreditua agortu bada ekonomia-ekitaldi batean, egoera hori ezagutaraztearren, administrazio-ebazpena emango du Industria Berritzeko eta Garatzeko Sailburuordetzak; bertan kreditua zein egunetan agortu den adieraziko da eta ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Aurreko ekitaldi ekonomikoan aurkeztu diren eta aurrekontu-ekitaldi bakoitzean emateko ezarritako muga gainditu dutelako laguntzarik jaso ez duten proiektuak, gorago adierazitako eran ukatu bazaie laguntza, hurrengo ekitaldiko aurrekontu-kredituetako baliabideei egotzi ahal izango zaizkie, baldin eta agindu honetan laguntzak jasotzeko ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Horretarako, laguntzen eskabidea berriz aurkeztu beharko dute, baina lehentasunaren ondorioetarako, atzera botatako lehenengo eskabidearen data hartuko da kontuan.

3.– Laguntzak ordenan emango dira, espedientea osorik dagoen unearen arabera.

*3. artikulua.–* Laguntzen modalitatea.

Agindu honek arautzen dituen laguntzak gauzatzearren, mailegu-eragiketek edo finantza-errentamenduko eragiketek finantza-kostu txikiagoa izango dute, betiere, arau honen itzalpean eta finantza-erakundeekin berariaz sinatuko diren hitzarmenen itzalpean egiten direnean.

que se establecen distintas líneas de ayudas con fines de promoción económica, que establece el Programa AFI-Industria, de ayudas financieras en el sector industrial, de la Administración General del País Vasco, a la inversión en activos fijos a realizar en esta Comunidad Autónoma, en los términos previstos en la misma y en sus disposiciones de desarrollo.

*Artículo 2.–* Recursos Económicos.

1.– Los recursos económicos destinados a la finalidad del artículo anterior procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El volumen total de las ayudas a conceder dentro del ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente. De esta circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Innovación y Desarrollo Industrial.

2.– Mediante resolución administrativa se procederá a denegar las ayudas en el caso en que el presupuesto al que deban imputarse las citadas ayudas carezca de crédito adecuado y suficiente para la finalidad pretendida. Por todo ello, mientras se encuentre vigente el presente programa si en un ejercicio económico se agota el crédito consignado para la concesión de las ayudas, al objeto de dar publicidad a esta circunstancia, por la Viceconsejería de Innovación y Desarrollo Industrial, se emitirá resolución administrativa en la que se señalará la fecha en que se ha producido el agotamiento del citado crédito, publicándose la misma en el Boletín Oficial del País Vasco.

Los proyectos de inversión presentados en el ejercicio económico precedente, que no hayan obtenido ayudas por falta de crédito presupuestario y que hayan sido denegados en la forma anteriormente prevista, se podrán imputar a los créditos presupuestarios del ejercicio siguiente, siempre que los citados proyectos cumplan con los requisitos establecidos en la presente Orden para la obtención de las ayudas, para lo cual deberán presentar una nueva solicitud, si bien, a los efectos de prioridad se conservará la fecha de la primera solicitud denegada.

3.– La concesión de las ayudas se irá realizando ordenadamente en función del momento en que el expediente esté completo.

*Artículo 3.–* Modalidad de las ayudas.

Las ayudas contempladas en la presente Orden se materializarán a través de la reducción del coste financiero de las operaciones de préstamo o de arrendamiento financiero que se formalicen al amparo de esta norma y de los Convenios que a tal efecto se suscriban con las Entidades Financieras.

*4. artikulua.*– Erakunde onuradunak.

1.– Jarraian adierazitako baldintzak betetzen dituzten Enpresa Txiki eta Ertainek (ETE) eskuratu ahal izango dituzte agindu honek arautzen dituen laguntzak:

– Guztira, 250 langiletik behera izatea.

– Urteko negozio-kopurua gehienez 40 milioi eurokoa izatea, edo bestela, urteko balantze orokorra gehienez 27 milioi eurokoa izatea.

– Aurreko baldintza horietako bat betetzen ez duen ezein enpresak, edo enpresa batzuek elkarrekin, zuzenean nahiz zeharka, %25etik gorako partaidetzarik ez izatea.

Goian adierazitakoaren beste edozein interpretazio egiteko, 1996ko apirilaren 3ko Batzordearen 96/280/CE Gomendioan (EEAO, L107, 1996ko apirilaren 30ekoa) enpresa txiki eta ertainen definizioari buruz ezarritakoa edo Gomendio hori ordezkatu edo aldatzeko ematen diren xedapenak hartuko dira kontuan.

Dena dela, enpresa onuradunak industria-arlokoak izango dira, ekoizleak, meatzaritza edo/eta eraldakuntzakoak, edo arlo horiekin lotura duten zerbitzu teknikoetakoak, edo informazioaren eta komunikazioen gizartearen eremukoak. Beti ere, sozietatearen helburuaren eta negozio-kopuruaren arabera, jendearekin zuzeneko harremanetan enpresak egiten duen merkataritza-jarduera ia hutsa izan behar da.

2.– Dena den, aurreko puntuan zehaztutako enpresa txiki eta ertainek Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean kokatu behar dituzte laguntza jasotzen duten inbertsio-proiektuak.

3.– Agindu honek arautzen dituen laguntzak enpresa onuradunei eman eta ordaindu aurretik, buruturik egon behar dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek antzeko laguntzak edo diru-laguntzak enpresa horiei itzularazteko edo haien zioz zehapenak ezartzeko oraindik izapidetze-fasean dauden prozedura guztiak.

*5. artikulua.*– Baztertutako erakundeak.

Ezin izango dira laguntza hauen onuradun izan:

a) Enpresa handiak, hau da, agindu honen 4. artikuluko 1. idatz-zatian esandakoaren arabera txikiak edo ertainak ez diren enpresak.

b) Herri erakunde eta sozietateak.

c) Eusko Jaurlaritzako sail eta azpisail hauen eskumen-eremuetako inbertsio-proiektuak dituzten enpresak: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Garraio eta Herri Lan Saila, Nekazaritza eta Arrantza Saila, eta Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Merkataritza eta Turismo Sailburuordetza.

*Artículo 4.*– Entidades Beneficiarias.

1.– Podrán acceder a las ayudas contempladas en la presente Orden las Pequeñas y Medianas Empresas (PYME), entendiéndose por tales aquéllas que cumplan los siguiente requisitos:

– Que empleen a menos de 250 personas.

– Que su volumen de negocio anual no exceda de 40 millones de euros, o bien, que su balance general anual no exceda de 27 millones de euros.

– Que no se halle participada directa o indirectamente en un 25%, o más, por otra empresa o conjuntamente por varias de ellas que no reúna alguno de los requisitos anteriormente expuestos.

Para cualquier otra interpretación de lo señalado anteriormente, se tendrá en cuenta lo establecido en la Recomendación 96/280/CE de la Comisión, de 3 de abril de 1996, sobre la definición de pequeñas y medianas empresas (DOCE, L107, de 30 de abril de 1996), o las disposiciones que la sustituyan o modifiquen.

En cualquier caso las empresas señaladas deberán ser empresas industriales, extractivas y/o transformadoras, productivas, de servicios técnicos conexos a los anteriores y empresas del ámbito de la sociedad de la información y de las comunicaciones. En todos los supuestos la actividad comercial directa al público deberá ser residual, en función de su objeto social y de su volumen de negocios.

2.– Las empresas señaladas en el número anterior, deberán localizar los proyectos de inversión objeto de ayuda en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– La concesión y, en su caso, el pago a las empresas beneficiarias de las ayudas reguladas en la presente Orden, quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

*Artículo 5.*– Entidades excluidas.

Quedan excluidas como beneficiarias:

a) Las Grandes empresas, entendiéndose por tales, las que no tengan la consideración de Pequeñas o Medianas empresas de acuerdo con el Artículo 4 punto 1 de la presente Orden.

b) Los Entes y Sociedades públicas.

c) Las empresas cuyos proyectos de inversión corresponden a los ámbitos competenciales de los Departamentos de Educación, Universidades e Investigación, Transportes y Obras Públicas, Agricultura y Pesca, y Viceconsejerías de Comercio y de Turismo del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

*6. artikulua.–* Diruz lagun daitezkeen proiektuak.

Arau honen 4. artikuluaren arabera enpresa bat onuradun izan litekeenean, eta enpresa horrek inbertsio-proiketua aurkezten duenean, diru-laguntza jaso ahal izango du, baldin eta honako baldintza hauek betezen baditu:

a) Laguntza eskatzen den ekitaldiari dagokionez, inbertsio-kopuru onargarria gutxienez 60.000 eurokoa izatea.

b) Proiektua burutu behar duen enpresak, inbertsio-proiektua bukatzen denerako, gutxienez, 3 langile izatea plantillan, eta, gutxienez, hiru urteko epe batean zehar. Beharkizun hori betetzat emateko, nahikoa izango da enpresak gutxieneko langile-kopuru hori izatea eta lanpostuetariko bik zuzeneko lotura izatea ekoizpen-prozesuarekin.

*7. artikulua.–* Diruz lagun daitezkeen inbertsioak.

1.– Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, laguntza jaso dezakeen inbertsiotzat joko da enpresaren aktiboari gehituko zaizkion aktibo finkoak eskuratzeko inbertsioa, baldin eta, agindu honetan eta berau garatzeko xedapenetan ezarritakoez gainera, baldintza hauek betetzen baditu:

a) Abenduaren 20ko 1643/1990 Erregе Dekretuan bildutako Kontabilitate Plan Orokorrak ezarritako definizioaren arabera kategoria edo epigrafe hauetan dauden aktiboak izatea:

– 215 Informatika-aplikazioak.
– 220 Lurrak eta ondasun naturalak.
– 221 Eraikuntzak.
– 222 Instalazio teknikoak.
– 223 Makineria.
– 224 Tresneria.
– 225 Beste instalazio batzuk.
– 227 Informazio-prozesuetarako ekipoak.

Aktiboak lurrak izanez gero, eraikuntzak dituzten lurretara mugatuko da laguntza.

Dena den, aktiboek zuzeneko lotura izan behar dute enpresaren helburu soziala den jarduerarekin.

Aktiboen preziotzat haien balio «garbia» hartuko da, hots, fakturatutako zenbatekoari Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta ateratzen den balioa.

b) Aktiboak lehenengo aldiz erabili edo abian jartzea. Erabilitako eraikin edo bestelako eraikuntzak eskuratzen badira, berriak balira bezalako tratamendua emango zaie.

c) Horiek guztiek, gutxienez, hiru urtean irautea enpresaren aktiboan (fakturan ageri den datatik aurrera zenbatuta).

d) Aktiboak, oro har, inori kontraprestazioarekin edo kontraprestaziorik gabe lagatakoak ez izatea.

*Artículo 6.–* Proyectos de inversión subvencionable.

Los proyectos de inversión serán calificados como subvencionables cuando sean realizados por empresas consideradas como beneficiarias según lo establecido en el artículo 4 de la presente norma, y cumplan las siguientes condiciones:

a) Que el volumen de inversión admisible, correspondiente al ejercicio en el que se solicita la ayuda, sea como mínimo de 60.000 euros.

b) Que sea desarrollado por empresas que tengan una plantilla mínima de 3 trabajadores a la finalización del proyecto de inversión, manteniéndola como mínimo durante tres años. Se considera cumplido este requisito cuando del número mínimo de trabajadores establecido, al menos dos puestos de trabajo estén directamente relacionados con el proceso productivo.

*Artículo 7.–* Inversión subvencionable.

1.– Se considera inversión subvencionable a efectos del cálculo de las ayudas, la adquisición de activos fijos que se incorporen al activo de la empresa y que cumplan, además de los que fueran de aplicación en virtud de lo dispuesto en la presente Orden y sus disposiciones de desarrollo, los requisitos que, a continuación, se indican:

a) Que se trate de alguna de las siguientes categorías, según la definición que, al efecto, establece el Plan General de Contabilidad, recogido en el Real Decreto 1643/1990 de 20 de Diciembre, en los epígrafes siguientes:

– 215 Aplicaciones informáticas.
– 220 Terrenos y Bienes naturales
– 221 Construcciones.
– 222 Instalaciones técnicas.
– 223 Maquinaria.
– 224 Utillaje.
– 225 Otras instalaciones.
– 227 Equipos para procesos de información.

En el caso de terrenos, serán subvencionables únicamente por la parte edificada.

En todo caso, los activos deberán estar directamente relacionados con la actividad que constituye el objeto social de la empresa.

Se considerará como precio de los activos su valor neto, entendiéndose como tal el importe facturado una vez deducido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

b) Que sean utilizados o entren en funcionamiento por primera vez. En el caso de que se trate de la adquisición de edificios y otras construcciones ya usados, tendrán el tratamiento de nuevos.

c) Que permanezcan, como mínimo, tres años (que computará a partir de la fecha de la factura correspondiente) en el activo de la empresa.

d) Que, con carácter general, no se hallen cedidos a terceros, con o sin contraprestación.

e) Aktiboak, oro har, enpresa eskatzaileak berak fabrikatutakoak ez izatea (eta inoiz ere ez da zenbatuko aktiboek dakartzaten kanpo-kontsumoetatik gorako baliorik).

f) «Eraikuntzak eta Lurrak eta Natur Ondasunak» ataleko inbertsioak egiten direnean, laguntza jasoko duen maileguaren edota finantza-errentamenduaren muga kalkulatzeko, aktiboen balioaren %70 bestekoan izango da diruz laguntzeko modukoa inbertsio hori. Beti ere, dagokion eskrituran ageri den balioa hartuko da balio-oinarritzat.

2.– Laguntzen zenbatekoa kalkulatzen denean, laguntzak eskatzen diren urtean aktiboak eskuratzeko egindako inbertsioa baino ez da kontuan hartuko, nahiz eta proiektuaren burutzapenak ekitaldi bat baino gehiago iraun, 2.2. artikuluan adierazitako kasuetan izan ezik. Aktibook enpresan bertan egon behar dute fisikoki ikuskapena egiten denerako, eta eskaera aurkezten den ekitaldi bereko fakturak aurkeztu behar dira onartutako inbertsioa benetan burutu dela eta agiriak eta erositakoak bat datozela egiaztatzeko.

## II. KAPITULUA
## MAILEGU ERAGIKETEN ETA FINANTZA-ERRENTAMENDUKO ERAGIKETEN FINANTZA-KOSTUA TXIKITZEKO LAGUNTZAK

### I. ATALA

### LAGUNTZEN EZAUGARRIAK

***8. artikulua.***– Finantza-eragiketak.

1.– Atal honetan arautzen diren laguntzak emango dira enpresek lagundutako proiektua finantzatzeko egiten dituzten mailegu-eragiketa eta finantza-errentamenduko eragiketetan. Eragiketa horiek finantza-erakundeekin formalizatu beharko dituzte enpresek, betiere, Agindu honen babesean, eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak finantza-erakundeekin egingo duten Lankidetza Hitzarmenaren itzalpean, edo Kreditu Ofizialerako Erakundeak, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eta Kreditu Ofizialerako Erakundearen arteko Lankidetza Protokoloaren esparruan, finantza-erakundeekin sinatuko duen finantzaketa-kontratuaren itzalpean. Atal honetan araututako laguntzak eman litezke, halaber, arestian aipatutako sailek eta finantza-erakundeek, Erkidegoko Finantzaketa Ildoetan oinarriturik, etorkizunean egin litzaketen hitzarmenen babesean formaliza litezkeen eragiketetarako.

2.– Enpresarekin eragiketa formalizatzen duen finantza-erakundeak KOEan irekita eta eskuragarri dagoen kreditu-bidean saldorik baldin badu, eragiketak esparru horretan formalizatu behar dira.

3.– Atal honetan aurreikusitako finantza-eragiketak eurotan eta beste edozein dibisatan formalizatu ahal izango dira, hurrengo artikuluetan ezarritako baldintzak betez gero.

e) Que, con carácter general, no hayan sido fabricados por la propia empresa solicitante (y, en cualquier caso, nunca se computarán por un valor superior al de los consumos externos que incorporen)

f) En el caso de inversión en «Construcciones y Terrenos y Bienes Naturales», y a efectos del cálculo del límite de préstamo y/o arrendamiento financiero a subvencionar, dicha inversión se computará como subvencionable por una cuantía igual al 70 % del valor de los activos. En cualquier caso, el valor tomado como base será el reflejado en la correspondiente escritura.

2.– Para el cálculo de las ayudas se tendrá en cuenta, únicamente, el importe de adquisición de activos realizada en el año de la solicitud de las mismas, excepto en los supuestos contemplados en el art. 2.2, con independencia de que se trate de proyectos cuya realización se efectúe en mas de un ejercicio. Estos activos, tras su adquisición, deberán encontrarse físicamente en la empresa y se corresponderán con las facturas indicadas como justificativas de la realización del proyecto de inversión aprobado.

## CAPÍTULO II
## AYUDAS DESTINADAS TANTO A LA REDUCCIÓN DEL COSTE FINANCIERO DE LAS OPERACIONES DE PRÉSTAMO COMO DE ARRENDAMIENTO FINANCIERO

### SECCIÓN I
### CARACTERÍSTICAS DE LAS AYUDAS

***Artículo 8.***– Operaciones financieras.

1.– Las ayudas contempladas en la presente Sección, se aplicarán a las operaciones tanto de préstamo como de arrendamiento financiero destinadas a la financiación del proyecto objeto de subvención. Estas operaciones deberán ser formalizadas con las Entidades Financieras al amparo de la presente Orden y del Convenio de Colaboración que se suscriba entre las mismas y los Departamentos de Hacienda y Administración Pública y de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco o del Contrato de Financiación suscrito entre el Instituto de Crédito Oficial y dichas Entidades Financieras en el marco del Protocolo de Colaboración entre la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Instituto de Crédito Oficial, así como aquellas operaciones a formalizar al amparo de posibles Convenios que pudieran concertarse entre los Departamentos antes citados y las Entidades Financieras, en base a las Líneas de Financiación Comunitarias.

2.– En tanto en cuanto la Entidad Financiera correspondiente cuente con saldo en la línea abierta y disponible en el ICO, las operaciones deberán formalizarse en dicho marco.

3.– Las operaciones financieras contempladas en esta Sección podrán ser formalizadas en euros o en cualquier divisa, siempre que éstas se ajusten a las condiciones que se fijan en los siguientes artículos.

Dibisak eurotara aldatzeko truke-neurria finantza-eragiketa egilesteko baldintzak jasotzen dituen agiria sinatzen den egunekoa izango da, edo, eskabidearekin batera halakorik badago, eragiketa formalizatzeko poliza egiten den egunekoa.

4.– Oro har, eskabidea egiten den ekitaldian bertan formalizatu behar dira poliza horiek, edo, gehienez jota, eskabidea egin eta hurrengo ekitaldiko lehendabiziko bi hilabeteen barruan, betiere, kontuan hartuta, gehienez ere, hori formalizatzeko epea bi hilabetekoa dela, inbertsioak bukatzen direnetik hasita. Aurreko ekitaldian formalizatutako polizak ere onartu ahal izango dira, proiektuaren burutzapenak ekitaldi bat baino gehiago irauten duenean eta eragiketa horiek aurreko urtean hasitako poroiektuak finantzatzen direnean, betiere, formalizazio-urtean indarrean zegoen finantza-hitzarmenean ezarritako baldintzak errespetatzen badira.

*9. artikulua.*– Diruz lagun daitezkeen maileguak.

Maileguen ezaugarriak:

Honako hauek joko dira diruz lagun litezkeen mailegutzat:

– diruz lagun litekeen inbertsioaren %70etik beherako kopurua, edo

– finantza-erakundeak onartutako mailegu-kopurutik beherakoa.

b) Epea: 5 eta 7 urte bitartekoa, hasierako ezaldia barne dela. Ezaldiak iraun dezakeen denbora, gehienez:

– 7 urterako maileguetan: 24 hilabete.
– 6 urterako maileguetan: 18 hilabete.
– 5 urterako maileguetan: 12 hilabete.

Espedientea instruitzen duen organoak goian aipatutakoez bestelako epeak ere onartu ahal izango ditu, baldin eta mailegua formalizatzeko agirian berariaz agertarazten bada mailegua agindu honetan ezarritako laguntza-programari lotuta dagoela. Inguruabar horrek ez du aldaraziko laguntzen gehieneko zenbatekoa; hau da, gehienez jota, 7 urterako maileguei dagokien bera izango da, eta ezaldia ere gehienez 24 hilekoa izango da.

c) Mugaeguneratzeak: gutxienez, hilean behingoak.

d) Eragiketei aplikatuko zaien gehieneko korritu-tasa:

- KOEren kreditu-bidea erabiliz formalizatzen diren eragiketei aplikatuko zaien gehieneko korritu-tasa KOEren indarreko hitzarmenean ezarritakoa izango da.

– Gainerako eragiketetan, agindu honen 8. artikuluan aipatutako hitzarmenari eutsiko zaio.

e) Hitzarmenaren sinatzaileetarikoa den E.B.S.ren batek eragiketa abalatuz gero, korritu-tasa 0,25 puntu txikiagoa izango da.

*10. artikulua.*– Laguntza jaso dezaketen finantza-errentamenduak.

El cambio de divisas a euros, será el de la fecha de la firma del documento de condiciones de autorización de la operación financiera o, en caso de haberse adjuntado a la solicitud, el de la fecha de formalización de la póliza de la operación.

4.– Con carácter general las pólizas deberán ser formalizadas en el año de la solicitud o en los 2 primeros meses del ejercicio siguiente al de la misma, teniendo en cuenta que el plazo máximo para su formalización es de dos meses a partir de la finalización de las inversiones. No obstante podrán admitirse pólizas formalizadas en el ejercicio precedente cuando se trate de operaciones que financian proyectos de inversión iniciados el año anterior y cuya duración abarca más de un ejercicio, siempre que se encuentren dentro de las condiciones establecidas en el Convenio Financiero vigente en el año de su formalización.

*Artículo 9.*– Préstamos subvencionables.

Características de los préstamos:

Se considerará como préstamo subvencionable el importe menor de:

– el 70% de la inversión subvencionable, o

– el importe del préstamo autorizado por la entidad financiera.

b) Plazo: como mínimo 5 años y máximo 7, incluyendo el período de carencia inicial el cual será, como máximo:

– Préstamos a 7 años: 24 meses.
– Préstamos a 6 años: 18 meses.
– Préstamos a 5 años: 12 meses.

Por el órgano instructor del expediente podrán admitirse plazos diferentes a los anteriormente señalados, siempre que en el préstamo formalizado se recoja expresamente que el mismo se incluye en el programa de ayudas establecido en esta Orden. Este hecho no modificará la cuantificación de las ayudas a conceder, cuantía que no excederá, en ningún caso, de la correspondiente a los préstamos a 7 años, con una carencia máxima de 24 meses.

c) Vencimientos: como mínimo de carácter mensual.

d) El tipo de interés máximo aplicable:

– Para aquellas operaciones a formalizar mediante la utilización de la línea ICO será el que corresponda según el Convenio ICO vigente.

– Para el resto de operaciones se establecerá en el Convenio previsto en el Artículo 8 de la presente Orden.

e) En el caso de que la operación sea avalada por una S.G.R., firmante del Convenio, dichos tipos de interés se verán reducidos en 0,25 puntos.

*Artículo 10.*– Arrendamiento financiero subvencionable.

1.– Kreditu Erakundeen Diziplina eta Kontuhartzailetzari buruzko uztailaren 29ko 26/988 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian dagoen definizioaren araberako finantza-errentamenduaren bidez finantzatzen diren aktibo finkoek agindu honetan aurreikusitako laguntzak jaso ditzakete, baldin eta, 7. artikuluan aipatutako beharkizun orokorrez gainera, ondoko hauek ere betetzen badituzte:

- Enpresa onuradunak konpromisoa hartu behar du erosteko aukera baliatzeko, eta behar den garaian baliatu egin behar du. Konpromiso hori formalizazio-agiri egokian jaso behar da.

- Finantza-errentamendua egiten duen erakundea Finantza-Errentamenduaren bidez Eragiketak Finantzatzeko Hitzarmenaren sinatzaileetarikoa izan behar da.

2.– Finantza-errentamenduko eragiketen ezaugarriak:

a) Honako hauek joko dira diruz lagun litezkeen finantza-errentamendutzat:

– diruz lagun litekeen inbertsioaren %70etik beherako kopurua.

– finantza-erakundeak onartutako finantza-errentamenduaren kopurutik beherakoa.

b) Epea: gutxienez bi urte eta gehienez bost urte. Espedientea instruitzen duen organoak goian aipatutakoez bestelako epeak ere onartu ahal izango ditu, baldin eta mailegua formalizatzeko agirian berariaz agertarazten bada leasing-a edo finantza-errentamendua agindu honetan ezarritako laguntza-programari lotuta dagoela. Inguruabar horrek ez du aldaraziko laguntzen gehieneko zenbatekoa, eta, beraz, ez da izango 5 urterako finantza-errentamenduei dagokiena baino handiagoa.

c) Mugaeguneratzeak: gutxienez, hilean behingoak.

d) Eragiketei aplikatuko zaien gehieneko korritu-tasa:

- KOEren kreditu-bidea erabiliz formalizatzen diren eragiketei aplikatuko zaien gehieneko korritu-tasa KOEren indarreko hitzarmenean ezarritakoa izango da.

– Gainerako eragiketetan, agindu honen 8. artikuluan aipatutako hitzarmenari eutsiko zaio.

e) Hitzarmenaren sinatzaileetarikoa den E.B.S.ren batek eragiketa abalatuz gero, korritu-tasa 0,25 puntu txikiagoa izango da.

*11. artikulua.*– Laguntzen zenbatekoak.

1.– Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak hobariak emango ditu laguntza jaso dezaketen finantza-eragiketen korritu-tasetan. Hona hemen hobarien zenbatekoak:

– Korritu-tasa izendatuari 1,75 puntu kenduko zaizkio, oro har.

– Laguntza gehigarri gisa, beste 0,25 puntu kenduko zaio, finantza-erakundeekin sinatu beharreko hitzar-

1.– Los Activos Fijos financiados mediante arrendamiento financiero, tal y como se define en la Disposición Adicional Séptima de la Ley 26/1988, de 29 de julio, sobre Disciplina e Intervención de las Entidades de Crédito, podrán acogerse a las ayudas contempladas en la presente Orden siempre que, además de cumplir las condiciones generales señaladas en el Artículo 7, cumplan los siguientes requisitos:

– Que la empresa beneficiaria se comprometa a ejercitar y ejercite en su momento la opción de compra, recogiéndose dicho compromiso en el documento de formalización correspondiente.

– Que el arrendamiento financiero sea realizado por Entidad firmante del Convenio para la Financiación de Operaciones mediante Arrendamiento Financiero.

2.– Características de las operaciones de arrendamiento financiero:

a) Se considerará como arrendamiento financiero subvencionable el importe menor de:

– el 70% de la inversión subvencionable.

– el importe del arrendamiento financiero autorizado por la entidad financiera.

b) Plazo: como mínimo dos años y como máximo cinco años. Por el órgano instructor del expediente podrán admitirse plazos diferentes a los señalados, siempre que en el leasing o arrendamiento financiero formalizado se recoja expresamente que el mismo se incluye en el programa de ayudas establecido en esta Orden. Este hecho no modificará la cuantificación de las ayudas a conceder, cuantía que no excederá de la correspondiente a los arrendamientos financieros a 5 años.

c) Vencimientos: como mínimo de carácter mensual.

d) El tipo de interés máximo aplicable:

– Para aquellas operaciones a formalizar mediante la utilización de la línea ICO será el que corresponda según el Convenio ICO vigente.

– Para el resto de operaciones se establecerá en el Convenio previsto en el Artículo 8 de la presente Orden.

e) En el caso de que la operación sea avalada por una S.G.R., firmante del Convenio, dichos tipos de interés se verán reducidos en 0,25 puntos.

*Artículo 11.*– Cuantías de Ayudas.

1.– El Departamento de Industria, Comercio y Turismo concederá una bonificación en los tipos de interés de las operaciones financieras subvencionables en las siguientes cuantías:

– 1,75 puntos del tipo de interés nominal con carácter general.

– 0,25 puntos de subvención adicional para aquellas operaciones avaladas por una Sociedad de Garantía Re-

menaren sinatzaileetarikoa den Elkarrekiko Berme Sozietateren batek eragiketa abalatuz gero.

– Finantza-eragiketen korritu-tasa izendatuari 2 puntu gehiago kenduko zaizkio, baldin eta proiektua agindu honen eranskineko zerrendako udalerrietako batean garatzen bada. Udalerri horiek, gizarte, ekonomia eta hirigintzaren aldetik degradazio larria jasaten duten eskualdeetan egonda, erakunde arteko planak izan behar dituzte indarrean, egoera hobetzeko.

Edonola ere, korritu-tasen hobaria ezin da eragiketa baimentzean edo formalizatzean jarritako korritu-tasa izenduna baino handiagoa izan.

Korritu-tasa aldakorra duten eragiketetan, korritu-tasa izenduna zenbatekoa izango den finkatzeko orduan, deialdia argitaratu aurreko azken 6 hilabeteetan urteko EURIBORaren batez bestekoa zein izan den hartuko da erreferentzia-balio modura.

2.– Eragiketa bakoitzari dagozkion puntuak zenbat diren finkatutakoan, eguneratutako diru-laguntzari dagokion zenbatekoa kalkulatuko da. Hori kalkulatzerakoan, indarrean dauden erreferentziako tasak eta eguneratzeko moduak erabiliko dira, betiere, Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratutakoari jarraituz.

II. ATALA
LAGUNTZAK METATZEA.

*12. artikulua.–* Diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa.

Maileguen edota finantza-errentamenduko eragiketen baliotik urtean laguntza jaso dezakeen zatiaren gehieneko zenbatekoa, hau da, onuradun batek urtean guztira jaso ditzakeen laguntzen gehieneko zenbatekoa, 1.500.000 eurokoa izango da. Kopuru hori eguneratu egin daiteke Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuordeak urtero egingo dituen deialdietan, KPIren aldakuntzei egokitzeko.

*13. artikulua.–* Laguntzak metatzea.

Agindu honek ETEentzat arautu dituen laguntzak eta xede berarekin edo beste helburu batekin emandako beste laguntza batzuk proiektu berean metatzen badira, laguntza guztien batura ezin da izan inbertsio garbiaren %30 baino handiagoa.

*14. artikulua.–* Aldi berean beste diru-laguntza batzuk jasotzeko ahalbidea.

1.– Agindu honetan arautako laguntzak eta xede berarekin beste herri-administrazio batzuek emandako laguntzak bateragarriak izango dira, baldin eta laguntza guztien baturak 12. eta 13. artikuluetan ezarritako mugak gainditzen ez baditu; halako laguntzarik jasoz gero, horren berri eman behar zaio Industria Sustatzeko Zuzendaritzari. Adierazitako muga gaindituz gero, soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio agindu honen babespean jasotako laguntzari.

cíproca incluidas en el Convenio a firmar con las Entidades Financieras.

– 2 puntos adicionales, del tipo de interés nominal de las operaciones financieras, cuando se trate de proyectos que se desarrollen en municipios relacionados en el Anexo a la presente Orden ubicados en comarcas en las que, existiendo importantes niveles de degradación socioeconómica y urbanística, cuenten con planes interinstitucionales en vigor.

En cualquier caso, la bonificación del tipo de interés no podrá ser superior al tipo de interés nominal al que se ha autorizado o formalizado la operación.

Para la determinación del tipo de interés nominal de las operaciones con tipo de interés variable, se tomará como valor de referencia la media del EURIBOR anual de los 6 últimos meses previos a la fecha de publicación de la convocatoria.

2.– Una vez establecidos los puntos de subvención correspondientes a cada operación se calculará el importe de subvención actualizada. Para dicho cálculo se utilizarán los tipos de referencia y actualización vigentes publicados por el Diario Oficial de las Comunidades Europeas.

SECCIÓN II
ACUMULACIÓN DE AYUDAS

*Artículo 12.–* Importe máximo de las ayudas.

El importe máximo anual del valor de los préstamos y/o de las operaciones de arrendamiento financiero a subvencionar, al que una misma empresa beneficiaria podrá tener acceso, considerados conjuntamente, no podrá superar el límite de 1.500.000,00 Euros. Dicho importe podrá ser actualizado en la convocatoria anual del Viceconsejero de Innovación y Desarrollo Industrial, con el objeto de tener en consideración las variaciones en el IPC.

*Artículo 13.–* Acumulación de las ayudas.

Para un mismo proyecto de inversión, la acumulación de las ayudas contempladas en la presente Orden para las PYMES con otras ayudas de igual o diferente finalidad, no podrá ser superior al 30% de la inversión en términos netos.

*Artículo 14.–* Posibilidad de concurrencia con otras subvenciones.

1.– Las subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas que tengan el mismo objeto que las recogidas en la presente Orden serán compatibles en cuanto no superen en su conjunto los límites establecidos en los artículos 12 y 13, debiéndose notificar dichas ayudas a la Dirección de Promoción Industrial. En caso de superarse dicho límite, la ayuda concedida en virtud de esta Orden se minorará en la cantidad correspondiente al exceso.

2.– Agindu honetan arautUtako laguntzak bateragarriak izango dira Gauzatu-Industria programan edo antzeko beste programa batzuetan iragarritako laguntzekin, baldin eta ondo bermatuta badago proiektu-finantzaketak gutxienez bere %30ean ez duela laguntza publikorik.

3.– Agindu honen bidez ezarritako laguntzetan, Batzordearen «minimis» laguntzei buruzko 96/C 68/06 Jakinarazpenean (edo horri buruz Europar Batasunean emandako beste arteztarau nahiz xedapenetan) zehaztutako «minimis» arauak bete beharko dira, eta, beraz, onuradun berberari guztira «minimis» kontzeptuan emandako diru-laguntzen osoko diru-kopurua ezin izango da 100.000 eurokoa baino handiagoa izan hiru urteko epe batean.

III. KAPITULUA
PROZEDURA

*15. artikulua.*– Deialdia.

Agindu honek inbertsio-proiektuetarako arautUtako laguntzak urtean behin egingo diren deialdien bidez iragarriko dira eta publizitate, lehia eta objektibotasunaren printzipioei jarraituz emango dira.

Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuordeak egingo du deialdia; deialdian ondo zehaztuko da zein aurrekontu-izendapen zuzenduko den eta zenbat diru erabiliko den ekitaldi horretan diru-laguntza horiek emateko, zein epetan aurkeztu behar diren eskabideak, eta, azkenik, horretarako izendatuko diren erakunde laguntzaileak ere tartean direla, eskabideak eta inprimakiak non jaso eta aurkeztu behar diren.

*16. artikulua.*– Eskabideak.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko beharkizunak betetzen dituztenek eskabidea eta gainerako agiri osagarriak urteko deialdiaren eranskinean erakunde laguntzaile izendatutako erakundeetarik edozeinetara eraman behar dituzte, edo Industria, Merkataritza eta Turismoko lurralde-bulegoetara, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak ezarri dituen beste bideetatik igorriko dituzte, Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuordeak urteko laguntza-deialdia egiteko ebazpenean ezartzen duen epean.

2.– Behin deialdia egindakoan, eskabidearen eredua eta formularioak erakunde laguntzaileetan eskuratu ahal izango dira, edo, bestela, Industria, Merkataritza eta Turismoko lurralde-bulegoetan ere bai. Nahi izanez gero, interneteko helbide honetan ere aurkitu ahal izango dira agiriok: www.eragintza.net.

3.– Diruz lagundu beharreko inbertsioak ekitaldi bat baino gehiago iraunez gero, behar den garaian beste eskabide bat aurkeztuko da, baina, ekitaldi batetik bestera, eguneratu beharreko agiriak baino ez zaizkio erantsiko.

